

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Amaitu da herri administrazioetan Nafarroako berezko hizkuntzen erabilera arautzen duen Foru Dekretuak eragindako enplegatu publikoekin egindako negoziazio-prozesua

Urtebeteko epean prestatu beharko dute departamentuek lanpostu elebidunen plangintza, eta sindikatuetakordezkariekin negoziatuko da, onartu aurretik

Astelehena, 2017.eko martxoak 20

Gaur goizean amaitu da Funtzio Publikoaren Mahaian eta Lan-kontratadun Langileen Enpresaz gaindiko Hitzarmen Kolektiboaren Negoziatio Batzordean sindikatuetakordezkariekin Nafarroako berezko hizkuntzen herri administrazioetakode erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren proiektuaren inguruko negoziatio-prozesua. Nafarroako Gobernuak sindikatuak aurkeztutako 53 ekarpenetatik 21 onartu ondoren, Dekretu-proiektuak ELA sindikatuaren babes, LAB eta ANPE sindikatuak abstentzioa eta CCOO, UGT, AFAPNA eta SMN sindikatuak aurkako jarrera jaso ditu.

Nafarroako Gobernuak onartu dituen ekarpenik esanguratsuenen artean dago sindikatuak aurkeztutako proposamen hau: horren arabera, Gobernuaren departamentu bakoitzak urtebeteko gehienezko epearen barruan egin beharko duen plangintza (6. artikulua) sindikatuak mahaietara igorriko da langileei eta prozedurei dagozkien alderdiak negoziatu daitezzen, Gobernuak plangintza horiek onartu aurretik.

Olo kontseilariak gogorarazi du Dekretuaren helburua dela Nafarroako euskal hiztunei (biztanleria osoaren % 12,9, Soziolinguistikako azkeneko inkestaren arabera) Nafarroako berezko bi hizkuntzetan arreta jasotzeko aukera bermatzea; eskubide hori Euskararen Legearen 6. artikuluan jasota dago.

Halaber, lanpostuetan sartzeko eta horiek ezagutzeko euskara ezagutzeari buruzko eta enplegatu publikoak jardun profesionalerako hizkuntza-gaikuntzari buruzko III. Titulari dagokionez, Dekretuak bermatzen du elebidun gisa ezartzen diren lanpostuak betetzen dituzten eta Nafarroako bi hizkuntzak ez dakizkitenek hartuta dituzten eskubideak ere errespetatuko direla, eta aukera emango zaiela antolatzen diren prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko.

Lanpostu horiek ezarriko dira Gobernuak departamentuak dagozkien plangintzak egin eta gero plangintza horiek sindikatuak negoziatu ondoren, gaurko batzarrean onartutako ekarpenak jasotzen duen bezala.

Dekretuaren zirriborroak jaso ditu dagoeneko herritarren eta sindikatuak ekarpenak, eta orain, Gobernuaren departamentuetara

bideratuko da; ondoren, Toki Araubidearen Foru Batzordeak eta Euskararen Nafarroako Kontseiluak onartu beharko dute, Nafarroako Gobernuak onartu eta Nafarroako Kontseilura bidali aurretik, azkenik behin betikoz onar dadin.